

JESUS M.^A DE ARENAZA

MEDICO

CONSULTAS:

BILBAO - GRAN VIA, 82 - 2.^o - IZQDA.

TELEFONO 41 41 81

MUNGUIA - ELORDUGOITIA, 1

TELEFONO 20

Bilbaon 1968ko Aprilak 22

Agur adiskide:

Idazleen artean neure burua ikustenik
'ez del pentsatu baña orrele badereitxezu or dialtzen
dautzut zure itaunketa, beteta.

Nire idazlanak ez dira asko izan baña aldiakianak
ezin dodez dauak izendatu; emaitza idazle, laguntza
Ile "betetzaille" baño. "Amaitasuna" aldiakianari leengo
Sultzakadak, Aita Berniatua jar batere, geuk emon geurtze
zan. Besterik ez dot egin.

Besarkada bat eta urrugo rarte

Alvarez Tardos





AGUR

ILEROKOA
1 ZENBAKIA

1970 - ORRILLA - 30

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

ZURI

Bilbo-ko urian, Ibaizabal ertzean jaino naz. Orantxe jaino be, luzaroan lurpean egon eta gero, Jaio-barri, orri al lez, Baiña lurpean ez da jaino inoiz ezer, lehenago azia erein barik. Onela nire azia be urte zaarretakoa: areitz zaararren ezkurra. Ernekatzik emon barik, lur emonkor bat eta aro on bat noiz etorriko itxaroten egon eta azkenik eme. Bizi-bizi eme be.

Argitara azaldu baiño ez, orri-biko eginda, ZORIONA euskaldun guztiok. Zur nago ostanta, euskaldun guztiok pozik onartuko nozuela, uste izatean. Zuen ezbear eta atsekabeon artean, jaiotza on baten poza dakartsuet, Zuek poztuaz, ni be pozik. Zorion au iraunkorra izan bedi guracn.

Zoriona, Bilbo-ko neurc 40.000 euskaldunok. Aururtzean alkarre-gaz biziko gara; ta cuskeraz alkar aituko. Nilako bat baiño gixtiagorik ezenduen merezi.

Zoriona, bizkaitar guztiok. Zuen berbeta utsean nator, errez ulertze-koan. Zer irakurri rengo, ta barriak nuni artu ta nun zabaldu izango dozuelako.

Zoriona euskaldun guztiok. Bizkaitera indartuaz cuskeru indaruko dalako. Onen bidez elduko ain maite dogun batasunera Poza artu cuskeraren bizia zeuof batera sendotuko dalako.

Bilbon diru asko dago, zorixarrez ez geure eskuetan. Alan be maiteasunak indur aundia dau ta, ba dira asko euki ez ta be, daukentoaz amets da-gienak. Gazte biotz zabaloi eskarrak, ni argitara. Nire poza. Ume batek beti dau jaioteko gogoaz: negar zelaira eka-rti bidakarre be, maite dauz guraoak.

Izena «agur» ezarri dauste; euskaldun guztiok eta erdelun askok be aitzin dabena.

Gurasok esan daustene, agur ori ez da alde egiera duan arena, aurpegia lur oni emotera datorranarena baiño; etorri nator ta orretantxe.

Euskal Erri au lenengoz begiz joutsean:


Agur bero bat azabei. Gure Bilbon eta Euskalerrri osoan gure izkuntzaren alde jokatu ta gora joan ziran. Areak egin ebezan euskaldun nire gurasok.

Agur bero bat gategoi be. Ea dira makalak zeuen adorea ta kementa. Zuek sortu nozuen ezker, azi ta ezi be zuek egingo. Nire kuma inguruan guraso gatzek, Aitorren izkuntzan entzuteak, adurretan jartri nau.

Etorrerako agur onetan, Bilbon sendotuta, auso da nire irrintzia; cuskeraz beti. Bizkaiteraz, alan dakie nire gurasok eta. Goi-maillako cuskerari bideak egin. Bide zaarrak galdu barik, barruti, sendatu. Zapata barriekaz, lenngo biotzaz.

Agurrik hitoi utatu barik, ume lez asarrea zer dan ez dot jakin gura.

Guztiontrat, zeun berbetan, zutunik, txapela erantzita: AGUR JAU-NAK, JAUNAK AGUR, AGUR TERDI.



Begonia'ko Ama - Gure Zaindaria

ITXAROPENAK ETA KEZKAK

Europarren batasuna aurvera doa. Urtebete osoan pot eginda euki dauen otsporrik gogorrena azpiratu al-izan da, lenengo La Hoy'n gara, Gomonatko zorian-lasaita lez. Druasak'ko batzarren, gogoan izango dogu beti. Sei'ko Europarren Diru-biltze bakarra ezabagi dauke; an lenengo mailera igota, errezkadan datoz urrengo besteak, batez-bera, Europa Bata'ko Batzar Nagusi edo Lege Biltzarra. Oraindik kezak: Ez ete-dausku atzen orduko ostiakaren bat botako norbaitek, eta gu? Betiko kanpoan ete?

Kanzer gaiztoaren birus'en bat atzitu ei-dau. Eri bildurgari onek, bere azkena izango dau itxuraz laster. Aihbeste kezka ta ondapan dakarvan gaioa ezbestera doaz. Azelako lasaitasuna giza-diarantz! Kezka bat emen be, Alkolia, ta orren ondorengo drugak, ta «birus» barri gaiztoetatik... lau burpildun herabilla. Zuek eriotzen erudun!

Urrea bere neurria jaxi eta orien arteko atlu-omnak bide balatsuagotetik etorriko ei-dira. Kezka nekagarria: An errez gordetzen dau aberestean au, ludun aurveragenerako beaz dau dirutze, orno zulo eta burkopetan alperrik gordeta. Gitsiren aberastasuna akoren kalte.

Illargira eldu gara. Egun onaitan Nixon jaunak Mart'e-ra joateko eguna izentatu beaz dau. Tresnaz zenbat gauza edes lortzen ikasi dogun! Kezka bildurgarria: Aurverapen oniek damoan indarra gizon banaka batzun esku dogota; beste guztiok orrean zuzentasun edo zorokerien azpian urdiuri.

Tresna ta Tramunkulo orrean bidez, lanak bigundu egin yakuz. Neke gixtiago ta etekin aundigotak. Kezkat ala bere: Gure abereldi onen alferrik, berez alferrik gara, ta inoren lopo bizi izan gara dogu. Estatuoko nominatirik, izarditako lanetatik, liberrata izatetik ta aihbeste bigunderietatik bigitidaren bila. Ta ez gara arduratuko orreatik lortzen dogun dirua, besteren baten izardirik egiña dala jakinda?

Konstitio ondoren ara norainoko bide-barritze, gaukotasun eta bat-bateko ezmatze. Kezkat baiña: Jaungoetik eztertzarik bere alde guztietatik zirikoa. Naizen au eta inguruan daukotonen guztiok utetirik etorri garala zinuistu beaz ete-dogu barregarri?

Erri-ikastoletan laster bilinguismo orren bidez, guk ikasi eta apaindu ezin izan gen-dun cuskeru mailera, gure ondorengoak ikasiko ei-daukuz. Izango ete-gara edertasun au aurvera erobotko lain?

ORBEL-ZAARRA

IDAZLE GUZTIERI

Euskal idazle asko dago Bizkaito erri geienetan sakabanatuta. Batzuk, ezagunak, euren idazlanak idaztarian edo aldi-karietara bihurtu argitaratzen dabenezan. Beste asko oraindik asaritu ez diranak edo biatlu be-dabaz argitaratu ez daustezanak, ukamen orerri argibidea emon barik geinean; zu-zendari askok ez dau erantzunik edo lanik biutzten eta orrela azpiztzen dira, aske-ran, idazle izan letekezan aslo.

AGUR aldi-kariaren elburua euskera bizia sendotzea dalarik beragaz ondurtuta dogean batzordeak erri izaten dau bidirik egokiena zein dan: idazle barriak sortaraztea.

Dadakizue ba idazleok, emen arvera ona izango dogue ta zuen lanak argitaratzen ezbadira erantzun batzeg bihurtuko jatzuez.

Gu ez goaz lege esturik jartzen; ba-koztzaren norlasuna aintzat arturik azal-duko dogu baiña aurretik jakin beaz dogue erriko euskera erabilta ta bizkaiteraz egungo doguia.

Beste euskalki edo ortografiko idazleok or daukiez beste aldi-kari edo argitaratzeleok.

Gure asmoek bat eginda bazoguz! Asi aibat arihen lanak bialtzen!

Gaur zoritarrez uiola balteak datoz gure kultura ibaitara, euskal erriaren izak-hera alzeritarren aitara, abesti, bizimodu, elerri eta uberek urtu ta ezereztuko arri-koan jartzen dabena; baiña ez da olakorik gertatuko danok alegintzen bagara.

Gure ustez kultura, ikuntza, ikastolak eta beste gauza asko ez dira politikeagaz edo taldekariakz nastau beaz: Lenengo ta bat guztiana dala nastatzez kalgagarri izan-go litzake ta biguerenez lege baruan jar-raitu nai dogularik ikuntzaren zabalhan- da usik eta garbi alburzatat arteko es- katzen dauzugu guztiari.

Azken oar bat: Batzar Nagusi batera delituko dauzugu laizter, baimenak lortu ondoren, idengo bizkaitoari ta gerago Euskal-Erri guztiokari.

AGUR

LAZTANA NEUREA

Zelai zabal aretan
Kabirik txukunena
Neukan sukertatua,
Laztana zeura.
Loraz inguratutik,
Baratz eder batean
Agiri zan kabilia,
Zerua bailitazan.

Beragandik ez urrin,
Goialde bedartusuan,
Zugat tantai arroak
Bustzen zirean,
Urretxindor alaien
Abesti gozoenak
Entzuten ziran bertan
Goizetik gaubera.

Galeperrak ostera,
Euren pospolinketaz
Alaitzen eben sarri
Solotik etzea.
Ur gozodun iturri,
Errekasto bizkorra,
Murmurioz abeska,
Entzuten genduzan.

Atsegin-baratz urak,
Benetan zirudian
Biotz ameslarian
Egongu yatorra.
Gogo-kezkarik gabe,
Bakez eta atsegiuez
Bizi giñian biok,
Aingeru bezela.

Antxen dastatu neban
Biotzaren extia,
Antxen ezautu neban
Zure maitasuna.
Yoranez eta gogoz,
Egunez eta gabaz,
Maiteki esaten nezutun:
Laztana, neurea!

Arruza'tar Mikel

TVS HIJOS Y TEL

TEVSKERA

(EL MITO DEL "BATVA")



EL MITO DEL "BATVA" Y EL TEVSKERA

BIGARREN 73

71

POR J. DE ARENATA

ARENATAZUNA

B I Z K A I A

160gn. zenb. - 1968ko maiatzak 15 - 4 pt.

Urteurren ospetsu bat

Gizonaren Eskubideen Autorkizuna

1948 - 1968

1945 garren urtean amaitu zan mundu guztiko II garren gudua, Europa ta Asia-ko erririk gelenak astindu ebazan ikaragarrizko gudua. Zenbat negar, zenbat odol, zenbat alargun, zenbat umezurzt! Erru bako milloi askoren eriotzea ekarri eban gudu zakarra!

Demokratikoak «izenez» ziran Estaduak, Europako fazismo gelenak, ez danak, zapaldu ebezan. Orduan agertu ziran nazismo eta fazismoaren azpian egindako aberkeriak. Orduan entzun genduzan lenen-gez Auswitz. Treblinka ta beste laino gorritz estalduta egozan zigor-landa bildur-garrien izenak. Orduan jakin genduzan an

egindako gaiztakeri guztiak. Mundu guztia arrituta geratu zan, sinistu ezinik, zelan gizona abereen azpitik ibilli eitekean. Baiña egia zan, egi itzal ta gogorra.

Askatasun deiairen bitsetan egozan Errietako buruzagiak. Orrela lortu eben ONUko batzar nagusia; ta batzar orren agindurik eta fruturik ederrena, «Gizonaren Eskubideen Autorkizuna» izan zan.

Agindu orreek, 1948 garren urtean batzar aretan ontzat artu ziran; baiña miifez bakarrik. Autorkizun ori izenpetu eben Estaduen artean, asko ziran, gelenak bearbada, sifaturakoa betetan ez ebenak.

Azaldu daiguzan lau edo bost atal, munduaren faltsokeria ikusi daigun.

- 3 gna. Zor jakoz edozein gizoneri bizia, bere esku izatea ta segurantzeta.
- 5 gna. Ezin lefteke inor artu oñiazepean, nekepean, odolpean, ez dagokion eran gizona kaxkartuz.
- 20 gna. Edonok dauka eskubidea, eragotzen barik, besteakaz alkartzeko ta bakezko laguntasuna egiteko.
- 23 gna. Edonok dauka eskubidea, sindikatukaz antolatzeko eta, bere ondasumeri begira, besteakaz alkartzeko.

Ta onela jarraitu geinke atal guztiak adierazotzen, guretzat, demokratentzat, ain atsegingarri diran bizimodu oba baten oñiarriak azaltzen.

Baiña zer gertatzen da gaur, 20 urte igaro ondoren, 1948 garrenean Autorkizun ori izenpetu eben naziofioen artean? Ba... orduan lez, gitxi dirala, deklaraziño ori aintzat artu ta betetan dabena. Ezkerrean ta eskuman ikusten doguz utsak: gizona makifitatzat edo ezerezetzat dauken gobernu totalitarioak edo antzekoak. Ogei-garren urteurrena dala-ta, or asi dira, aur-

● SERRAT DALA TA EZTALA

5 gn. orriald.

● INDarREZKO BIDEAK ALA BAKEZKOAK?

7 gn. orriald.

● AMODIOZKO KARTAK

8 gn. orriald.

pegi gogorrez, Eskubide orreek goraltzen. Oraingo egun batzuetan, telebisioa ikusteak eta izparringia irakurteak amorrut emoten deusku. Zelan orrenbeste aurpegi gogor? Zelan ain errespetu gitxi egia?

Ez dago dudarik: gizonaren Eskubideak errespetatzen ez dituan Estadua ez da demokratikoa, naiz organikoa izan, naiz sozialista izan.

Autorkizun edo deklaraziño orren 20 garren urteurrenean, lengo lez gagoz: gizona nunnai zapaltzen da, gizona ez da bere buruaren jaube, abere bat lez makillapean bizi da.

Legeak, politikak dira; baiña gobernu batkotxak bere erara ikusten dauz. Orrela, ez dago argia egiterik; illunpean bizi da munduko zatirik audienea.

Baiña gobernu ta Estadu orreek, ez daicla demokratiko izena erabili beintzat.

ARENATAZUNA JOSU

BERTSOLARIAK SARAN 1968 MAIATZAREN 19

Mattin eta Xalbador
(LAPURDI - BAXENABARRA)

Azpillaga eta Lopategi
(BIZKAIA)

Amaika orenetan Meza Nagusia
bertsolariekin, jaun Erretora
predikari.

Oren batean bazkaria Trinke-
tean.

Lau orenetan Txapelketa leku
berean.

TXAPELKETAREN AZKENA PARISEN

MAIATZAREN 26'an

Bost orenetan, Eskual-Etxean
Ikusi 10 gn. orriald.

A photograph of a man standing next to a stone monument. The monument features a coat of arms at the top center and a large plaque with text in Basque. The man is wearing a striped polo shirt and light-colored trousers, with his right hand resting on the plaque. The background shows a hazy landscape with hills.

NAPAR ASKATASUNAREN ALDE
AMAYURKO ECHARRIAN BORROKA EGIN
ZUTEN GIZONAI
BETIKO ARGIA
1522



SEÑOR ARENAZA: "LA SITUACION DEL VASCUENCE DEBEMOS VERLA CON OPTIMISMO, DADO EL INTERES QUE ESTA COBRANDO SU ENSEÑANZA"

Escribe:

OFA
BEZUNARTEA

—¿Cuál es hoy día la mayor dificultad con que tropieza el idioma vasco?

—Compleje por parte de una gran cantidad de vasco-parlantes de que su bilingüismo o posesión del euskera como lengua materna constituye una dificultad para ulteriores estudios y medios de vida en general. El hecho de que, quizá, sólo un 2 ó 3 por 100 de los vascos-parlantes son alfabetos, es decir, saben leer y escribir en ese idioma. En tercer lugar, las dificultades que, muy exageradas, se dice constituyen la existencia de varios dialectos para la comprensión entre las gentes de distintas zonas, la enseñanza, edición de obras, etc., etc.

—¿Pero, es realmente un handicap saber vascuence?

—Efectivamente, hay quien lo creere así sobre todo en los pueblos, pero no debiera ser así, pues está comprobado en niños de muchos países, con enseñanza bilingüe o que poseen lenguas vernáculas como en nuestro caso, está comprobado digo, que el niño desarrolla mucho más la memoria verbal, con lo que en lugar de un impedimento resulta beneficio para aprender otros idiomas. Una cosa distinta sería llegar a la edad escolar desconociendo el idioma oficial, pero esto hoy ocurre raramente. En favor de esta opinión junto a mi experiencia, la de muchos compañeros y vasco-parlantes de otras profesiones.

—El elevado número de analfabetos a que antes aludía, ¿representa un serio problema?

—Ya lo creo que es un problema grave, quizá el mayor, pero sería fácilmente subsanable. Con interés y dedicando un poco

de tiempo, un adulto que lo habla necesitaría menos de un mes para leerlo y escribirlo. Para ello sería suficiente una vasta y buena campaña de alfabetización.

—En cuanto a la existencia de varios dialectos, ¿puede ser la causa del retraimiento de muchos para aprender el euskera, por miedo a no entenderse más que con un reducido número de personas que hablan su mismo dialecto?

—Los dialectos son una riqueza del euskera. Un euskaldun que sepa leer y escribir en su propio dialecto, medianamente culto, no tiene grandes dificultades para entender los escritos e incluso las mismas expresiones de vasco-parlantes de otras regiones. Revistas como "Zeruko Argia", con escritos en todos los dialectos son la mejor prueba y contribuyen a sentar las bases para una futura unificación literaria.

—Según esto, ¿cómo debe realizarse la alfabetización en las escuelas, ya sean para niños o para adultos?

—Indudablemente, como lo han afirmado euskérologos eminentes y conocedores del pueblo, como Severo Altube y Resurrección Azkue, "se debe alfabetizar en la forma más parecida al lenguaje empleado". Es decir, que yo espino (y como yo la mayoría de los académicos vizcaínos) que desde el punto de vista pedagógico y psicológico, debe alfabetizarse a cada cual en su propio dialecto. Después, en otros escalones puede pensarse en otros dialectos o en el euskera literario unificado.

—Entonces, ¿no es aceptable la idea de un vasco unificado a nivel de alfabetización?

—Es deseo de todos poseer un euskera literario unificado, pero a determinado nivel. En este sentido se están dando pasos para unificar criterios; la tarea no es fácil, pero la Comisión de Liturgia, por ejemplo, ha conseguido algo muy aceptable de cara al pueblo de habla euskérica. A nivel literario, soy partidario de un euskera unificado, siempre que no resulte algo artificial, sin raíz y condenado, por lo tanto, a desaparecer antes que los propios dialectos. Repito que mi criterio en cuanto a alfabetizar, sobre todo a los niños, en su propio dialecto, el vivo, el que van a poder emplear en el seno de sus familias y en las zonas de habla euskérica. Lo contrario sería un contrasentido que podría suponer hasta un complejo contra el idioma. Desde luego yo no añadiría dificultades ortográficas en la formación de base.

—En conjunto, ¿cómo debe verse la situación del vascuence: con optimismo o con pesimismo?

—Sin duda alguna, con optimismo, por el interés que está cobrando su enseñanza y también por el hecho de que eminentes miembros de la nueva Universidad de Bilbao le están aprendiendo.

bizitza

**b
a
l
e
n
d
i
n**



VRI:ONA



E G U N A K

GIZONAK AZTUKORRAK

Guk gizonok ba dalguz, apur bat, gure eskiztasunaren barri, eta apaiztasunetaz sustatu bear doguz aztukorrek garala. Arduraz asko be ba daukagu, egia esan, eta gure buruetan nasto amutiek sortzen dira sarritan. Ortik sortzen da aztukorrek izatearen gaitz orri.
Eta, iaurens, berez garrantzi aundiokok diran gauza asko azuten jalarz, baten be gure biliztako gorakortutik ur-gozamak ez ba dira. Orretan gizona berez da bereklotia: garrantzi-bako gauzak, beregandik ur ba'lagos, ez jakos azuten, baiña garrantzidunak be, urria ba'dagoz, zuan egiten jakoz.

E G U N A K I P N I B E A R R A

Gizonaren gaitz oneri osakai bat ipinteko asmatu dira egunak, gauza bakoiñko gorrokatueko diran egun bereziak. Alan ospatzen doguz bakaeraren eguna, bari-bideen eguna, mixinoien eguna eta olakok.

Santual be, curak gogoan izan dagaizuan, egun bat izendatzen dautseguz.
Ezlejuñko jazoerarik garoz be bai. Esaterako Berbizkundearen edo Igokundearen eguna.

USAra bertan, esaterako, eskerrak emoteko egun bat ospatzen dabe. Gai polita ta ezlekorra ta be gizonarentzat. Guk be olako egun bat ezarrita daukagu baiña itorki be ez dau kontuan artzen.

ERRIAREN EGUNA

Ovi guzia olan dala, ez eta da gauza egokia «Eriaren egun» bat ospatzen be? Ez ete giza garrantzi azukotiek orriko kontuan artu eta aztertu bear doguzan arazo asko eta nako? Eta gaur ez lenago baiña gitegiago.

Eta zer egin egun orretan? Jan eta edan eta jolasu baiño ez?

Eria herentan maite doguonok zerbitut gitegi egun bearko doguz.

Egun orri, lenengo ta beñen, erriaren harriuan erri-miña sortzeko da. Erri-miña ez ba'da, erri-lasterako adore giti izango dogu. Orretarako bi-deak artu bearko doguz ba egun orretan.

Baiña erri-miña usin aidden gertatuko litsake.

Erri-miña argia izan daiten, orriko arazo nekotak gogoratu bearko doguz. Ba dago gaur zer azterturik!

Eta arazo orretz urtebide bat biltatu, epe labur baterako edoaldi luze baterako. Getenetan, epe laburrean gauza aundirik ezin egia al izango dogu, baiña epe luze-rako erabagailu be, gitezienez gure buruz zuzenduko daukaguz, gure pentan-bernak bidertuko dituzte.

AZTERTZEA TA ERABAGIAK

Baiña azterte zu eta erabagi oneki, nore edo zeri begira?

Erriaren izakera berezia hera kontuan artu bearko dogu lenengo. Zein dan eta zertan dagon eta ezteztok galk ostean daban.

Erri-jakinietza edo kulturea ez da urria izango olako azterte baten. Ortik sortuko da, baiña, gure ezibideak, batzar-ruak eta itasotak eta olakok kontuan artzea be.

Gizarte-arazoz be sakona da eta gaur kontuan artzen dana. Aztertu dagaizun ba Euzkalerrian zer urtebide emoten dautseguz arazo amuti oneri. Eta orrek, eskatituez, erriketa edo politika gaira eroango gaitu. Ba dago or be zer aztertu eta zer kusiak naitzoka.

Eta erlejiñoa ez dogu alde batera iziti bearko. Barritatze aldi baten gaizoz eta gaur ezleju-bidetan artu gitekienez bideak urte askotarako garrantzia izango dabe. Asteroiak, ekereko bidea eroango gura gaituenak, alde baterik eta bestetik, ugari izango dira, baiña argi ikusten nieginduz bearko gata.

Zenbat gai egun orretan, batzarretan, etxean, etxean, jolasen... kontuan artu, bearrakok! Emon dagaizun erantzu on bat erriari. Eta erabagi sendo batzuk artu dagaizun.

ZER IZANGO DEGU?

Abestiak dihoskun antzera, egun onetan pentasu dagaizun zein dan Erriaren aurrean gure esgortu.
Zer egia degu?.. Ezer ez.
Zer egiten degu?.. Alkar jo.
Zer esango degu?.. Alkar il.
Ori ez! Ori ez!



EUSKAL-ERRI'TIK ISRAEL'ERA

Arenaza'ar Josu



—Ba oso ona, erri langille-langille batena, erri jator batena. Oso alai ikusten zan kalerik-kale ebillin notintzea, ta bardin etxean, dandatan, edangeltzetan, hotzetan eta abar. Tel Aviv, aiti bidez, oso erri polita da, barritatzen dagoana, baiña an ez dago ezer alperrik gaitzekorik; antzik 60 kilometrorara zenbat gura ari dago, baiña salturri edo smentotzeko dira etxe gaitzak; ori bai, danak euren baratz txikitsoekin orrituta. Busten denez ez dago an arria ekarzen alperrik denpora galzerik, ez orritz. Gudarai gazte asko ikusten dira kalerik-kale.

—Eguzten ez doguzan baiña lagunak diran Yair Dori ta Rachel Eishon'ek zelako artera emon eutsuen?

—Lenengo Rachel ikusi gendun: emakume oso arria da ta melitoren artu ginduzan, Yair'eri dituko eutsola ezanaz, alde baiño lenago ezagutu al izan geinkan. Oso interesgarriak izan ziran Israel eta Yair'eri buruz emon eutsian zerretaladak, batez be, mañti jator onen abertzaletasuna ta trehetasuna goraldu eusuzan.

—Gero itanduko dautsuet zerbaiz gitegiago Yair'etzaz, baiña Uriarte aitzagaz zelan?

—Uriarte Aita bardinakoa da, zuen irakurle amonatu ta euskeltzale gogorra. Ludiko gora-bera giteinak ondo ezagutzen ditu, egunero aihabi izparragi irakurzen dituzta. Israeli eziz batak behera ezagutzeko laguntzaikerik onena.

—Zer diño Uriarte Aitak Israelde-erri buruz, lur santuen begirapenari, Capucci Gotoñariari eta abar?

—Katolikok eta beste erligiotako kristauak ez daukie ezertariko eragozpenik sinetuzmenak eta oiturak eskatzen daban momentu diran arabek be. Capucci'ri buruz argi eguala esalitzan sartuta, palestinen aldeko jokoan, baiña arabe izanik ez zela ori arrikoteko; bai Gotoñain edo eleiz gizon biezela. Uriarte aitak israeldearen alde dagailla argi erabusten du... baiña gitegiago Agur'm alde.

—Eskerrak berari lerro onen bidetz eta goazen aurrera, zuen ustez eta

entzun dozenetik zelan bizi dira Israel'go arabek?

—Ereteriko batzuk esanda jakin genduz ondo giten baten. Aze, Jaffa, Eilat eta beste erri askotan ondo bizi dira, iñoenen, ten baiño obeto, israeldearrek aihabi eskola ta aurrerapen ekarri dautsez-eto. Avazortik gogortena, orfegiazonen ori, erez, kopeloa lotena da, baiña sugardu laterarik ez dabe olakorik nai. Zauri ori bizi-bizi dagoan bitartean ez dago bakarik egierik, ta eureri ori komeni jakiz, bestela euren artzen burrukan aihabi hitzazoten.

—Bai neu bere ueste ortetokoa naitz. Eta hebreo izkuntzari buruz zer deitizazue?



—Ba izkuntze zovogarriz dala ta kapolitk doazan juldar gaitzak itxasen ditolea, Israel'go laterarik 6 iletetako ikastarok ordainitzen ditu; 5 iletetan, astean 5 egun eta egunean 5 orduko ikastaro ondoren danak itxasten ei dabe gorraizuan aundiko metodokin.

—Euskererentzat ez litzakez txarto etorriko baiña nor ordainduko? Eta bene-benetan, gogorik bai ikasteko? Eta euskeria alpatu doguz ekero... Ezagutzen gaituz erri berezi bezela?

—Bai orritz! Emengo aldean kultura aundia dago ango erriaren artzen eta euskaldunak ghitala ezten genduzan, ai bai, esanda gure kondararen gorberaneta bai azeltzen euskuin bai hotelean, bai taxistak, bai beste batzuk be. Ez dagoz lo, ez; eta kontratarzen ziran, adi bidez, gure pasaportea Portugal en jota egotia. Eusker berezitzen dira lagunak eta etozak.

—Euki dabe inoiz euskaldunekin artu emonik?
—Ez goaz emen gauza aundirik azaltzeraz, baiña ona emen gauza polit bat. Israeli sartu zanean, itxas ontzietarako piloto ta kapitain giti eukezan ta lenengo-gotariko bai Ermandorena izenokoa izan zan. Jatorria izango zan Heifit'in, kale bateri, «Ermandorena Streets» izabi dautsa. Beste euskaldun baten irudia be ikusi gendun, baiña an San Esteban lekuide etxean izan zan, Baiña'ko Labigeri kardenalarena.

(Atzen orrialdera)

Agur onetako azken zenbakian ezten genduzen, Josune ta Sabiri, Zubirlar sententzategiag, aihari-izketa luze-luze bat euli dogu. Israeli erri buruz lenengo eskuko irizirik ezagutzera oso egoki dala deritzagu ta orregaitik alderik garrantzitsuenak argitaratzen erabaki dogu. Ona ba emen, giti gora-bera, gure aihari-izketaren mamiñta.

—Zelan oñi jatzuen israelera joatez?

—Ba amon bi betetze izan gendun lenengo-lenengotik, Kristo jaino zan burraldeak eta Jotzi Sinautak hitzietza ta gure begitio diran juldar abertzelen laterik barritatuta ezagutzera.

—Zelan egin zenduen joan-ortoria?

—Eguzkitzen, Israeli'en bai sartubetan eta bai urtearen itzetzejo itusintzet ta arakatzera edo registrot izan gendun eguzkin-zelai'ko erzainegandik. Ikusten denz guda alditio neurriak artzen ditue an denpora joetzu baiña. Ori bai, arakaltzea sakona izan arren beti gogoratu eta begirapen aundienagaz artu gaituzen. Egon gitan beste egun etotezaguz, aritzen ziran, baiña gure arazoak emon genduzenem oso lagunkitro itezgin euskuin.

—Eldu ziñenkan zelakoa izan zan lenengoko susmoaz?



JERICHO



I
J
S
G

ZER

BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
I.º ZENBAKIA

UZTAILLA
— 1977 —



LEN - G E R O

JAKINTZA AGURTZEN

BIZKAIERA ZALEOK

ZER aldizkari jai o barri onen izenean, nere lenengo agurra Mokoroa Aitarentzat izan da, ta asmo ori berari azaldu ondoren, beragana jo neban goiz baten.

Baten batek esango dausku: ain bizkaera zale agertzen jakuzan aldizkari onetakoak, zergaitik gipuzkoar bategana?

Erantzun erreza daukagu itaun orrentzat: Mokoroa aitak izengoiti bako auskera maite dauelako, erri euskera, gure enda edo errazaren izate bereziarentzat erakuskarria dan izkuntzan goi mailako maixu dogulako.

Orain dirala urte pare bat inguru, nere alabaxoari Bilboko Gran Via dalakoan, esandago berbak ez jakuz aztu niri ta nere alabeari: «maite egizue zuen bizkaiera, aberatsa ta politenerikoa da ta.

* * *

AITA MOKOROA EUSKALKI-ZALEA

Baina Aita Justok euskera oso osoan maite dau, urteetan zear burn belarri sartuta, azter-lan sakonean diardu eta ia, ia here bizitzako amets ederrena burutu dauala esan geinke. Gizon langillea izatea ez da naiko olako lan bat egiteko,



orretarako jakintsua izan bear da... baina ez neuke bere apaltasunean mindu gura; ordu bete luzeko jardun aldia izan gendun, biotzak, nekeak eta oiñazeak alkarrerri azalduz; benetan pozgarriak izan ziran jakin nebazan barriak.

Gure asmoa azaldu neutsonean poztu zan gure gizona, asko ez bada be zoezer izango dalakoan bizkaieraren alde.

*

BERE LANA

Gero berak, here lanaren zeaztasunak emon eustazan: gizaundi baten lana benetan!

Ara zenbaki batzuk naiz eta onek lanaren garrantzia bear dan lez erakutsi ez.

Gutziz 92.500 esaera ezbardin batu ditu ortik eta emendik, bakoitza txartel berezi baten idatziaz. Euskerazko esaera bakoitzak erderazko itzulpenaren laburpena dakar, erbesteko izkuntzalarien eta ikasleen laguntzarako. Esaera jator orreik 1250 egillegandik artu ditu iturriak 378 dirala. (Iturri oneik batzuetan liburu bakarrak dira; beste batzuetan, aldizkari edo eguneroko bilduma osoa «iturri» bakartzat zenbatzen da).

Lan osoak 4.200 orri alde inguru betetzen ditu, lerro bakarrean idatziaz.

* * *

ORAIN AMAITZEN

Lana eginda dagoala esan leiteke. Orain Aita Justok esaten custanez, Fitxa edo txartel bakoitzari «bere izen-abizenak» ipintzea falta joko, au da, bakoitza here sail berezian ipintzea. Beste urte baterako lana au here, ta ez edozelakoa. Iru edo lau erbesteko egileen sistemak aztertu ondoren, euskerari obeto dagokiona asmatu dau berak.

Era orretara banandu ta bereziztuta, 1000 orri-alde inguruko lau tomo lodi izango ci dira, azkenerako.

* * *

ESKERRAK ETA OMENALDI BAT

Oneik dira zenbakien txirotasunak erakutsi ezin leizkigun lanaren edertasunak baina argitaratzen danean, gure eskuetan bildumaturik eukiko dogu euskera amaren gogo bizia, euskal nortasunaren gogo berezia.

ZER apal oneri izenean, eta Euzkadik, Mokoroa Aitari zor dautson omenaldiaren zain... eskerririk asko!

ARENAZA' tar JOSU


ZAR

BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
3n. ZENBAKIA

URRILLA
— 1977 —

KOILI- YMEVSKALDVNEN EGVNA 1977

urrillaren 9-an
Bilbao-n



10 ..etan MEZA S. Arton-en
11 .. KALEZ KALE Urtar-ean zarr
11.30 .. ALKARTZEA Aroal-ean
12 .. BILKUNDEA Gran Vian zarr
2 .. BAZKARIA Faria de Muestras-en
3.30 .. JAIALDIA Faria de Muestras-en
7 .. AGUR JAUNAK

URIZAR-ean
(Zazpi Kalearen)
Meza ta Kafeja atala

ARENAL-ean
Zazpi lurraldeetarik dotzen gaztetxoak
Itzateko errera

GRAN VIAN ZEAR
Urte ta gaztetxoan sekulako bilkundes,
txistu-otaz, abestia, dantzari, pankartz... eta abar.

FERIA DE MUESTRAS-ean
Bazkaria, Ondoren, jaiak zozgenia.
Sariketak, lehiakak, txapelketak... joko ta Buzgarriak.
AGUR JAUNAK

GIZARTEA

ERRIA TA UDALETXE GARBIKETEA

ERRIA

Cure ZER onetatik itaun au egingo neuke:

Erria zer da?

Ez da egongo gure izkuntzaren iztegia, esku-artearen edo agoTik ago lanegi arabillaz, geiago «koipeztu» dogun itzik!

Ekzerretik eskuetara, gure arteko alderdi to taldeetako uztaiau, ez dago inor eniaren izenean berba egiten ez dauanik.; baina baten batzuk «narru, gorrian» dagozela igarteko ez da zuunregia izan bear. Auteskudearen erantzuna lekuko!

AUTESKUNDEA TA DEMOKRAZIA

Auteskundea aitatu dogu, baina emen dago kakoa!

Askatasun-eske, demokrazia-eske, oiuka ta zarataka ibilli diran Galen batzuk, auteskundea e: da ezer, ez dan ezer esan, gura, diioe orain. «Demokrazia burgesa»ren adar jote bat baino besterik ez ei da auteskundea!

Eurak agintaritzara eltzen diranean, ekaniko ei dabe benetako demokrazia, «herri-demokrazia», eleznorik eta olako aþorrekoi oitura txarik bear ez dauan «demokrazia».

* *

«HERRIA»REN IZENEAN

Zelan ori? _itandu ezkerre, erantzuna laster entzungo dozu: «Herria» gen garalako!

Uriolak ba'dira, eurak «herria» ren izenean agertuko jat znz kalteen zuzentzaile.

Baso bat ereten ba'da, « izemia»ren izenean kontuak eskatuko dira.

Jaiak egin gura ba'dozuc la «reuren» Gaituen barik ba' zoaz, «hermia»ren aurka zabiltz.

Txori batek goitik beera «zera» egiten ba'dautse, «burgesia» izango da errudun eta «hermia»ren izenean kristonak entzungo dabez baten batzuk.

*

ERRIA GUZTIONA

Mutillak!

Erriari, edo eniaren izenari beintzat, bakean izteko ordua eldu dala uste dogu!

Lan katu la txakur bat edo lau txakur eta katu bat ez dira ERRIA, ez emen eta ez Singapur'en be.

«Dinamica de masas» dalakoaren jokoan eta ondo ikasita dagoan «metodo»agaz gauza guztiak egin gura dira «hermia»ren izenean., Baiña, jaungoikoari eskerak, Euskalania ez da edoze lako ERRIA.

*

AUTARKIAK NORTZUI?

Ur lojetan «arrant zale», batzuk pozik ibiltzen dira, baiña gure urak geroago ta garbiago datoz, eta emendik aurera bakoitzak jakingo dau nondik nora jo, nortzukaz eta nora arte.

Laster auteskundea izango ei dogu.

Betor ainbat lasteren!

Gizon eta emakume zintzo ta esku garbikoak aukeratu bearko dozu., gure Udal-etxeak garbitzeko.

Ez da lan erreza izango, orain arte dagoan beste zimaur eta pekorotz kentzea, baiña asi bearko da.

AUZO-ALKARTEEN JOKOA

Udal-etxeak garbitzeko, auteskundea garbitik asi bearko dogu.

Leku askotan sortu diran Auzo-Alkarteak, neuri Galen banuan baiño ezin aintzakotzat artu leikez.

Auzo osoaren ordezkari etc dira?

Ala auzoko talde batzun. ordezkari?

Emagaz jazo dana her-Gera, auzo-alkarteakaz be jazo da.

Irurogei ta amar milla. biztanle dituan auzo Galen izenean, seireun bazkide dituan alkarte Batek berba egin ete leike?

* * *

ERRIA, AUTARKI-BIDEZ

Auzi onen epaille, ERRIA izango da.

Laster, autarki-bidez, emitar bakoitzak here eretxia emongo dan to ori izango da gelenak edo maioriak zer gura dauan eta nortzuk agintari nai dituan jakiteko bidea.

AgoTik ago ta omanik oma dabilen «hermia»ren ordez, bene-benetako, ERRIA agertuko da.

ARENAZA'tar Josu'k

A photograph of a man standing next to a stone monument. The monument features a coat of arms at the top center and a large plaque with text in Basque. The man is wearing a striped polo shirt and light-colored trousers, with his right hand resting on the plaque. The background shows a hazy landscape with hills.

NAPAR ASKATASUNAREN ALDE
AMAYURKO ECHARRIAN BORROKA EGIN
ZUTEN GIZONAI
BETIKO ARGIA
1522